

# **DEIALDIA, 2016/2017 IKASTURTEKO IKAS- KETA-LAGUNTZAK LEHIAKETA BIDEZ EMA- TEKO**

## **1.- ARTIKULUA.- DIRU-LAGUNTZAREN HELBURUA**

1. Deialdi honen helburua hau da: 2016/2017 ikasturtean trebakuntza-zentroetan eta ikastegietan ikasketak egiteak Zamudioko herritarrei dakarzkien gastuak finantzatzea, betiere ikasketa horiek deialdi honetan aipatzen direnak badira, horrela udalerriko biztanleen artean jakintza sustatzeko eta kultura-maila handitzeko.

2.- Ikasketak goi-mailakoak diren kasuan, arau hauen 4. artikuluan aipatutako ikasketak izan ahal izango dira diru-laguntza honen objektu, betiere ikasketa horien titulurak Estatuan homologatuta badaude. Ikasketak erdi-mailakoak badira, Estatuan homologatutako zentroetan egin beharko dira.

3. Oinarri hauetan sartuta ez dauden ikasketek ez dute laguntzarik jasoko; esaterako, espezializazio-ikastaroak, IGA eta antzekoak. Euskara-ikastaroetarako ere ez da diru-laguntzarik emango, ikastaro horietarako diru-laguntzak Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak euskara-ikastaroetako ezarritako baldintzetan eta moduan ematen baitira (diru-laguntza horiek beste prozedura batzuk erabiliz ematen dira, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak onetsitako araei jarraiturik).

## **2. ARTIKULUA.- ARAUBIDE JURIDIKOA**

Ikasketa-laguntzak ematea arau eta lege hauen arabera emango dira: oinarri arautzaile hauetan aurreikusitakoaz eta deialdi honezaz gainera, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Diru-laguntzen Erregelamendu Orokorra onesten duen uztailaren 21eko 887/206 Errege Dekretua eta konpromiso-gastuaren onarpenaren eta kudeaketaren arloei dagozkien aurrekontu-arauak.

## **3. ARTIKULUA.- AURREKONTU-EGOZPENA**

1.- 2016/2017 ikasturterako laguntzen zuzkidura HIRUROGEITA HAMABI MILA EUROkoa da (72.000.- €) . "16/17 ikasturtean ikasteko beka eta laguntzak" deritzon 3260 48001 aurrekontu-partidaren kontura izango da.

#### **4.- ARTIKULUA.- DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA**

1.- Laguntza pertsonako eta eskatutako ikasturteko baino ezin daiteke eman, eta ondoren aipatzen diren zenbatekoetan eta ikasketetarako emango da:

<b><u>ZENBATEKOA</u></b>	<b><u>IKASKETAK</u></b>
600 €	A) GRADUKO IKASKETAK
600 €	B) BIGARREN ZIKLOKO GRADUONDOKO IKASKETA OFIZIALAK "Maste-rra"
300 €	C) HIRUGARREN ZIKLOKO GRADUONDOKO IKASKETA OFIZIALAK "Doktoregoa"
22 €/hileko (honako mugarekin: 22 x 9 = 198 €)	D) HIZKUNTZAK (EUSKARA BAZTERTURIK, 1. ARTIKULUAREN ARABE-RA, MANKOMUNITATEAK EMATEN BAITU)
198 €	E) UDAKO IKASTAROETAN ATZERRIAN IKASITAKO HIZKUNTZAK
220 €	F) HEZIKETA-ZIKLOAK
220 €	G) MUSIKA-GRADUA
220 €	H) BATXILERGOA
220 €	I) LHI

2.- Ematen den laguntzaren zenbatekoa inoiz ere ezin izango da diru-laguntza jasotako ikasketen kostua baino handiagoa izan; ematen den laguntza, beraz, justifikatzen den gehienezko zenbatekora mugatuko da eta aipatutako zenbateko horrek ezin izango du gainditu aurreko taulan ikasketen arabera adierazitakoa. Ondorioz, justifikatutakoa gainditzeko kendu egingo da.

3.- Ikasketetarako laguntzaren zenbatekoa ikasketek irauten duten hilabeteen arabera kalkulatu bada, laguntzaren zenbateko osoa izango da aurreko taulan ezarritako zenbatekoa eta ikasturteak irauten duen hilabeteen edo zatikien kopurua biderkatuz atzeratzen den zenbatekoa; gehienezko muga matrikularen kostua izango da.

4.- Ikasketak atzerrian egiten badira —E) kasuan izan ezik—, zenbatekoa lehen adierazitakoa halako bi izango da.

#### **5. ARTIKULUA.- DEIALDIA ETA EPEA**

1. - Laguntza-eskaerak aurkezteko epea 2017ko uztailearen 14an amaituko da; eskaerok deialdi honen I. eranskinean helburu horretarako ezarritako ereduaren arabera egingo dira. Eskaera horiek, arauotan aipatutako gainerako agiriekin batera, Zamudioko Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira bulego-orduetan.

2. Epe horretako azken eguna zapatua edo jaieguna bada, epea hurrengo egun bali-odunera arte luzatuko da.

3. Ebazpena emateko gehienezko epea hilabete bikoia izango da, ikasketa-laguntza emateko eskaeren deialdia egiten den egunetik aurrera. Epe horren barruan ezer ebazten ez bada, eskaerari ezezkoa eman zaiola ulertuko da.

4. Interesdun bakoitzak eskaera bat baino ezin izango du egin deialdi honen eta arauon babesaren pean.

## **6. ARTIKULUA.- ONURADUNAK**

Diru-laguntzaren helburu diren ikasketak egiten dituen pertsona adingabea bada, diru-laguntzaren onuraduna adingabearen legezko tutorea izango da eta haren izenean aurkeztu beharko du, adingabearen datuak adieraziz. Bestela, ikasketak egiten dituen pertsona izango da diru-laguntzaren eskatzailea eta onuraduna.

Adin nagusikoa den edozein pertsona fisiko izan daiteke ikasketa-laguntza hauen onuraduna, baldin eta betetzen baditu berriazko arau hauetan ezarritako baldintzak, deialdian, diru-laguntzak emateko udal-ordenantza orokorrean eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoa eta baldintza hauek:

a) Diru-laguntzen deialdia onartzen den unean gutxienez urte bi lehenagotik bizi-tzea eta erroldatuta egotea Zamudion.

Epe hori eten ahal izango da ikasketak atzerrian egiteagatik ikasleak Zamudioko udalerriko erroldan baja eman behar izan badu eta ikasketak egiteko bizileku hartu beharreko herrialdeko udalerrian alta eman behar izan badu; hori guztia agiri bidez egiaztatu beharko du.

b) Sei urte edo gehiago izatea edota diru-laguntzaren helburu diren ikasketen ikasturteari dagokion urte naturalean betetzea adin hori.

c) Aurreko ikasturtea gainditu beharra izango da, salbu eta laguntza lehenbiziko aldiz eskatzen denean; ikasturtea gainditu dela egiaztatzeko, ikastetxearen edo unibertsitatearen agiria edo justifikazioa aurkeztu eta izandako kalifikazioak edo diru-laguntza jasotako azken ikasturteko kalifikazioak jaso beharko dira bertan.

d) Eginiko ikasturteko (2016/2017) matrikularen egiaztagiria aurkeztu beharko da. Matrikula baliozkoa dela ulertuko da, diru-laguntzaren ondorioetarako, baldin eta gutxienez ikasturte horretako hiru ikasgai hartu badira eta ikasgai horiek kredituen % 50 ordezkatzen badute.

e) Laguntzak ematen badira ikasketak udan atzerrian egiteko, nahitaezkoa izango da egiaztatuta geratzea atzerriko ikastetxe edo akademiaren batean dagoela matrikulatuta.

## **7. ARTIKULUA.– ESKAERAK AURKEZTEA**

Eskatzaileek agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

A)Udalak diseinatutako eskabide eredia aurkeztea; eredu hori Udalaren webgunean ere ([www.zamudiokoudala.net](http://www.zamudiokoudala.net)) eskura daiteke. Eskabide eredia behar bezala bete behar da eta Zamudioko Alkatetzari zuzendurik aurkeztu Udaletxeko sarrera-erregistroan. Argi zehaztu beharko da zein ikasketa egingo diren, zein titulaziori dagozkion, zein den ikasketen iraupena, zein zentrotan egingo diren, zenbat ikas-urte geratzen diren titulua lortu arte, eta eskabide eredian azaltzen diren beste datu guztiak.

B) Eskaera eredu horrekin batera, interesdunak honako agiri hauek ere aurkeztu beharko ditu:

- Laguntza-eskaera izenpetzen duen eskatzailearen NANen fotokopia. Ikasketa-laguntza jasotzen duten adingabeei ematen zaizkien ikastaro edo prestakuntzen kasuan, gurasoek, tutoreek edo adingabeak zaintzeko eta ja-goteko ardura dutenek sinatu beharko dute laguntza-eskaera; NANen foto-kopia eta familia-liburua aurkeztu behar dituzte.
- Laguntza-eskaeraren helburu den ikasturteko matrikulari eta haren kostuari buruzko ziurtagiria; ziurtagiri horretan, matrikula horren kostua ja-so beharko da. Laguntzaren zenbatekoa iraupen-hilabeteen arabera zehaz-ten den ikasketen kasuan, honako hau izango da ikasketen guztizko zenba-tekoa: hileroko bat eta ikasturteak irauten duen hilabeteen kopurua bider-katurik ateratzen den zenbatekoa. Ikasketak akademitan egiten dituztenek akademiaren idazki bat erantsi beharko dute, hileroko ordaindu beharreko zenbatekoa adieraziko duena.
- Kostu ekonomikorik gabeko matrikulen kasuan, matrikulari buruzko ziurtagiria aurkezteaz gainera, laguntza-eskaeran aipatzen diren ikasketen ikasturteko irakasgaiei buruzko ikasketa-liburuen fakturak aurkeztuz justifi-katu ahal izango da diru-laguntza. Laguntzaren zenbatekora iristen ez ba-da, dirua itzultzeko betebeharra aplikatuko da.
- Atzerriko ikasketen kasuan, matrikulari buruzko ziurtagiriaz gaine-ra, laguntza ekonomikoaren eskaeran aipatzen diren ikasketak egingo dire-neko zentroaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, zeinetan egiaztatuko baita noiz sartu den zentroan; Zamudioko erroldan baja emanez gero, atze-rriko herrialdean bizilekua izateari edo erroldatuta egoteari buruzko ziurta-giria ere aurkeztu beharko da.

- Laguntzarik ematen bada, sarrera egingo den kontuaren titularrari buruzko bankuko datuak, bankuari buruzkoak eta kontu-zenbakia (24 digitu, IBAN barne).

C) Eskaerak aurretik ezarri diren aurreko baldintza guztiak edo baldintza orokorrak betetzen ez baditu, interesdunak hamar eguneko epea izango du hutsa zuzentzeko.

D) Udalak hiru hilabeteko epean ebazten ez badu eskaera, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera, eskaerari ezezkoa ematen zaiola ulertu beharko da.

E) Deialdi honen 4. artikuluko E) atalean aipatutako ikasketen kasuan, urte horretan bertan aurkeztuko da eskaera, ikasturtea egin ondoren.

F) Ikasturtea osorik egin ez dutenek ezin izango dute eskaera egin.

## **8.- ARTIKULUA.- INSTRUKZIO-ORGANOA**

1. Diru-laguntzak emateari buruzko udal-ordenantza orokorraren 14. artikuluan xedaturikoaren arabera, Zamudioko Udaleko Kultura, Hezkuntza, Gizarte Ekintza, Euskara eta Integrazioko zinegotzi ordezkaria izango da espedientearen instruktorea.

2. Kide anitzeko organo batek txostena egingo du eta txosten horretan zehaztuko du zein den ebaluazioaren emaitza eta zein den diru-laguntza emateko proposamena; kide anitzeko organo hori Zamudioko Udaleko Kultura, Hezkuntza, Gizarte Ekintza, Euskara eta Integrazioko informazio-batzordea izango da.

3. Deialdiari buruzko erabakia edo ebazpena Tokiko Gobernu Batzarrak emango du, instrukzio-organoak proposaturik.

## **9. ARTIKULUA.- BALIOESPEN-IRIZPIDEAK ETA DIRU-LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA**

Diru-laguntza emateko prozedura lehiaketa izango da, diruz lagundutako atal bakoitzerako adierazten diren puntuen arabera lehentasunekin, eskaeren lehentasuna eta prorrata ezarriz:

1.- Diru-laguntzak arauotan eta deialdi honetan ezarritako betekizun guztiak betetzen dituzten eskatzaile guztiei emango zaizkie, zehaztuko diren kopuruetan, betiere aurrekontuko partidaren muga gainditzen ez bada eta irizpide hauek aplikatuz:

a) Graduak ikasketak eta bigarren zikloko graduondoko ikasketak ofizialak 100 punturekin baloratuko dira.

- b) Hirugarren zikloko graduondoko ikasketak ofizialak 80 punturekin baloratuko dira.
- c) Heziketa-zikloetako ikasketak 60 punturekin baloratuko dira.
- d) LOGSE Batxilergoko ikasketak 60 punturekin baloratuko dira.
- e) Musika-graduoko ikasketak 60 punturekin baloratuko dira.
- f) Hizkuntza-ikasketak 40 punturekin baloratuko dira.

2- Lehiaketaren kasuan aplikatuko diren irizpideak hauek izango dira:

a) Ekitaldi aurrekontu-kreditua puntuaziorik handiena duten eskatzaileen artean banatuko da, aurreko zenbakian ezarritako balioespen-puntuen arabera.

b) Emandako diru-laguntzen zenbatekoak gaindituko balitu 1. zenbakian adierazi diren aurrekontu-mugak, orduan proratan banatuko litzateke guztien artean, bakoitzerako ezarritako puntuekin proportzioa gordez; nolana ere, Udalbatzak ahalmena izango du dagokion aurrekontuko partida behar besteko zenbatekoaz hornitzeko. Horren ondorioz, diru-laguntza emateko, ezarritako titulazioei dagozkien zenbateko guztien artean proportzioan banatuko da aurrekontu-kredituaren mugara iritsi arte.

c) Arauan babesaren pean eskatzaile bati inoiz ez zaio diru-laguntza bat baino gehiago emango ikasturte berean ikasketak egiteko. Eskatzailearen batek eskubidea badu ikasturte bakoitzeko laguntza bat baino gehiago izateko, zenbatekorik handienekoa emango zaio bakarrik, eta bigarrena ezetsi. Laguntza emateko eskari bat baino gehiago aurkezten badira eta laguntza bat baino gehiago jasotzeko betekizunak betetzen badira, diru kopururik handiena duena onartuko da eta gainerako guztiak baztertu egingo dira. Zenbateko berekoak badira, sarrera-erregistroa eman zaion lehenengoari emango zaio laguntza.

d) Dena dela, lehenetsun-hurrenkera ezarri beharretik salbuetsiko da deialdi honetan aurrekontu ekitaldi bakoitzerako izendatutako kreditua nahikoa bada, kontuan izanik zenbat diren aurkezteko epea amaitu ondoren onartuak izan diren eskaerak.

e) Deialdi honen 4. artikuluko A), B), C) eta D) letretan aipatutako ikasketetarako inoiz ez diru-laguntzarik emango laguntzen helburu diren ikasketen matrikulen kostuak baino zenbateko handiagoetan. Horrek ez du eragotziko laguntzaren helburu den ikasturteko ikasgaiei dagozkien ikasketa-liburuen fakturekin justifikatzea diru-laguntzaren zenbatekoaren eta matrikularen kostuaren arteko aldea.

3.- Instrukzio-organoak egiaztatuko du eskatzaile guztiek betetzen ote duten arauetan eta deialdi honetan xedatutakoa; hala badagokio, behar diren datu edo agiriak zuzentzeko eskatuko du eta, orduan, dagokion proposamena egingo du izapideak egin aurretik.

4.- Ebatzitakoa jakinaraziko zaie hala diru-laguntza ematen zaien pertsonei nola diru-laguntza ukatzen zaienei, eta arrazoiak eta organo-ebazleak egokitzen jotzen dituen gainerako baldintzak adieraziko zaizkie

## **10.- ARTIKULUA.- DIRU-LAGUNTZA ORDAINTEKO MODUA**

1.- Diru-laguntzaren zenbateko osoa ordainduko da onuradunak adierazitako banku kontuaren zenbakian, ikasturtea amaitutakoan, diru-laguntzaren justifikazioa aurkeztu ondoren eta deialdia ebatzi eta gero.

Norbaiti laguntzarik ematen bazaio akademia eta beste hezkuntza zentro batzuetan ikasketak egiteko, laguntzaren zenbatekoa akademiari ordaindu ahal izango zaio zuzenean, eskatzaileek hala egitea nahi dutela adierazten badute esplizituki; bestela, onuradunak aipatutako kontu-zenbakian ordainduko da. Ordainketa akademiari egingo zaiola adierazten bada, akademiak langileen zerrenda aurkeztu beharko du Udalean, bakoitzaren kostua hila-beteko eta fakturazioari dagokion aldiko zehazturik. Uztailaren 14a baino lehen, gutxienez % 80ko asistentzia eta aprobetxamendua egon dela egiaztatu beharko da, akademiak emandako agiri baten bidez.

Udan atzerrian hizkuntza-ikastaroak egiteko laguntza ematen zaienei aldi bakar batean egingo zaie ordainketa osoa, hura onartu ondoren. Ikastaroa egiten den urteko abenduan egingo da ordainketa.

Laguntzen ordainketa guztiak ikasketen ondoren ordaintzeko laguntzak izango dira. Laguntzaren onuradunak bigarren zatia ordaindu baino lehen uzten baditu ikasketak bertan behera, ez da ordainduko laguntzaren zenbatekoaren bigarren zatia.

2.- Diru-laguntzaren zenbatekoa sartu aurretik, onuradunak adierazi beharko du bankuko zein kontu-zenbakitan nahi duen dirua sartzea, diru-laguntza kontu-zenbaki horretan sar dadin. Hurrengo ekitaldietan pertsona berari ematen bazaio ikasketak-laguntza bat, ez da beharrezkoa izango datu horren berri ematea, salbu eta onuradunak eskatzen badu beste kontu-zenbaki batean sartzeko.

3.- Laguntzaren helburu izan den ikastaroren batek hiru hiruhileko baino gutxiago irauten badu, laguntzaren zenbatekoa ikastaroaren iraupenaren proportzioan gutxituko da, eta arau hauetan ezarritakoaren arabera justifikatu eta ordainduko da.

4.- Betebeharrak beteko dituela eta emandako dirua egoki erabiliko duela bermatzeko ez da bermea eman beharrik izango.

5.- Onuradunari ez zaio diru-laguntzarik ordainduko, baldin eta aurreko ekitaldietako diru-laguntzaren baten justifikazioa Udalak onartu gabe badago. Onuradunari aurreko diru-laguntzaren bat itzultzeko eskatu bazaio eta itzuli ez badu, orduan ere ez zaio ordainduko.

6.- Onuradunak Udalarik dirurik zor badio, Udalak laguntzaren zenbatekoarekin egin ahal izango du konpentsazioa.

## **11.- ARTIKULUA.- DIRU-LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA**

Diru-laguntza justifikatuzat joko da oinarri hauen 7. artikuluan laguntza eskatzeko ezarritako agiri guztiak aurkezten direnean eta interesduna laguntza emateko ebazpenean sartzen denean. Beraz, ez da beharrezkoa izango agiri gehiago eskatzea, salbu eta laguntza ematen duen organoak hala erabakitzen duenean.

## **12.- ARTIKULUA.- ESKATZAILEAREN BETEBEHARRAK**

Diru-laguntzaren onuradunak oinarri arautzaileetan ezarritako betebeharrak ez ezik beste hauek ere bete beharko ditu:

- 1.- Diru-laguntzak emateko prozeduraren araudian ezarritako betebeharrak betetzea.
- 2.- Finantza-egoera egiaztatzeko eta kontrolatzeko jardueri men egitea; beraz, jardueroi buruz eskatzen zaizkion argibide guztiak eman behar ditu.
- 3.- Ematen den laguntza onartzen ez bada, Zamudioko Udalari gehienez ere zazpi eguneko epean idatziz jakinaraztea, Zamudioko Udalaren jakinarazpen ofiziala jasotzen den egunetik aurrera. Onarpen hori aipatutako epearen barruan aurkezten ez bada, onartu egiten dela ulertuko da.
- 4.- Jasotako dirua itzultzea, baldin eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan xedatutakoaren arabera diru-laguntza itzuli beharra badu.
- 5.- Ikasturtean zehar edo ikasturtea amaitutakoan, ikasketak bertan behera utziz gero, Zamudioko Udalari idatziz jakinaraztea.
- 6.- Udalak adierazitako egunean eta orduan agertzea, laguntza bere helburura aplikatu den jakiteko behar diren argibideak emateko.
- 7.- Arau hauetan aipatutako agiriak ezarritako epeen barruan aurkeztea.

## **13. ARTIKULUA.- BESTE DIRU-LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA**

1.- Zamudioko Udalak ematen dituen diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuek ematen dituzten diru-laguntzekin, baita laguntzaren helburu diren ikasketak finantzatzeko ematen diren beste edozein eratako diru-sarrerekin ere; ez dira bateragarriak izango, ordea, ikasketok gehiegi finantzatuta gertatzen badira.

2.- Udalak inoiz ez du jarduera jakin eta zehatz bat birritan finantzatuko diru-laguntzetarako deialdi desberdinen bidez.

#### **14. ARTIKULUA.- PUBLIZITATEA**

Emandako diru-laguntzaren ezaugarriengatik, salbuespen moduan, onuradunak salbuetsita geratuko dira emandako diru-laguntzari publizitatea emateko betebeharretik, hargatik eragotzi gabe diru-laguntzei buruzko araudiak eta gardentasunari buruzko araudiak publizitatearen arloan ezarritako betebeharrak.

Oinarri hauen babesean diru-laguntzak ematen zaizkien pertsonak publiko egingo dira Udaltzatzen iragarki-taulan bandoa jarrita, nahiz eta datu horiek disoziatuta egongo diren haien babesa bermatzeko.

#### **AZKEN XEDAPENA**

Diru-laguntza eskaerak ebazteko prozedura Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, Udal Ordenantza Orokorrean eta berariazko arauetan xedatutakoaren arabekoak izango dira.